MEMORIA

1. ENTITATEAREN JARDUERA OROKORRAK

1.1. Sarrera.

Osakidetza, zuzenbide pribatuko ente publikoa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen bidez eratu zen, bere egituraren mendeko erakunde publikoen bitartez zerbitzu sanitarioak emateko helburu nagusiarekin.

Osakidetzaren misioa zerbitzu sanitario integralak bermatzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko arreta-maila guztiei modu koordinatuan helduz. Horretarako, Osakidetza zenbait Zerbitzu Erakunderen inguruan antolatzen da, kalitatezko arreta hurbila eta desberdintasunik gabea eskaintzeko.

Osakidetzaren egungo egiturak honako hauek hartzen ditu barnean:

- Zuzendaritza Nagusia.
- Emergentziak.
- Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa.
- Arabako ESIa.
- Arabako Errioxako ESIa.
- Donostialdeko ESIa.
- Goierri-Urola Garaiko ESIa.
- Bidasoako ESIa.
- Debabarreneko ESIa.
- Debagoieneko ESIa.
- Tolosaldeko ESIa.
- Bilbo-Basurtuko ESIa.
- Barrualde-Galdakaoko ESIa.
- Uribeko ESIa.
- Barakaldo-Sestaoko ESIa.
- Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIa.

1. ACTIVIDADES GENERALES DE LA ENTIDAD

1.1. Introducción.

Osakidetza, Ente Público de Derecho Privado, fue constituido mediante la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, con el propósito fundamental de proveer servicios sanitarios a través de las diversas organizaciones públicas que dependen de su estructura.

La misión de Osakidetza se centra en garantizar la prestación de servicios sanitarios integrales, abordando de manera coordinada los diferentes niveles de atención asistencial en el País Vasco. Para ello, Osakidetza se organiza en torno a una serie de Organizaciones de Servicios, cuya finalidad es ofrecer una atención de calidad, cercana, y sin desigualdades.

La estructura actual de Osakidetza incluye:

- Dirección General.
- Emergencias.
- Centro Vasco de Transfusiones y Tejidos Humanos.
- OSI Araba.
- OSI Rioja Alavesa.
- OSI Donostialdea.
- OSI Goierri-Alto Urola.
- OSI Bidasoa.
- OSI Debabarrena.
- OSI Alto Deba.
- OSI Tolosaldea.
- OSI Bilbao-Basurto.
- OSI Barrualde-Galdakao.
- OSI Uribe.
- OSI Barakaldo-Sestao.
- OSI Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces.

Santa Marina Ospitalea.

Gorlizko Ospitalea.

Arabako Osasun Mentaleko Sarea.

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea.

Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea.

Osatek (Sozietate Publikoa).

Onkologikoa (Atxikitako Zentroa).

Osakidetzak Erakunde Sanitario Integratuen (ESI) eredua hartu du bere ikuspegi asistentziala garatzeko oinarri gisa, euskal biztanleriaren osasun-emaitzak optimizatzeko beharrezkoak diren koherentzia eta koordinazioa ahalbidetuz. Eredu horrek osasuna sustatzetik eta gaixotasunak prebenitzetik hasi eta hilkortasunaren eta desgaitasunaren kausa nagusien tratamendu integralera arte biltzen du.

2021-2024 esparru estrategikoak osasuna jarri zuen politika guztien ardatz nagusi gisa, pertsonak izanik arretagune nagusia, ekitatearen eta hurbiltasunaren testuinguru batean. ESIak sortzen ari diren erronketara egokitzen joan dira, hala nola zahartzera, kronikotasunera eta mendekotasunera, eta ikuspegi berriak txertatu dituzte talde espezifikoei arreta emateko, hala nola haurrei, nerabeei, emakumeei, adinekoei eta, oro har, aniztasunari.

Arreta hurbilagoa eta ekitatiboagoa bermatzeko, beharrezkoa da lehen mailako eta ospitaleko asistentzia harmonizatzea arreta soziosanitarioa, berrikuntza eta gobernantza-egiturak osatzen dituzten elementuekin. Ikuspegi horrek osasun-emaitzak hobetzeko Osakidetzaren helburuari erantzuten dio, prozesu asistentzial eraginkorren bidez, arreta-maila desberdinen arteko koherentzian eta koordinazioan oinarrituta.

Azken urteotan, osasun-sistema azkar egokitu behar izan da, gizartearen aldaketen ondorioz. Hori dela eta, premia berriak lehenetsi behar izan dira, eta arreta sanitarioa egokitu behar izan da, segurtasun-maila handienak bermatzeko. Egoera horrek ahalegin handia eskatu du baliabideei dagokienez, eta telemedikuntza eta komunikazio aurreratuko sistemak bezalako teknologiak sartzea bultzatu du.

Testuinguru horretan, Osakidetzak bi garapen-ildo nagusitan lan egiten du:

1. Erakunde sanitario integratuen eredua finkatzea, Lehen Mailako Arretaren eta ospitaleko arretaren arteko koherentzia bermatuko duen gobernu-egitura bateratu baten bidez, pertsonen arretaren balioa maximizatuz.

2. Prozesu asistentzialen integrazio kliniko-funtzionala, eraginkortasun klinikoa eta erabiltzaileen irisgarritasuna erraztuko duten laguntza-ibilbideak sortuz, arreta berezia jarriz kronikotasunari eta mendekotasunari, sektore soziosanitarioarekin koordinatuta.

Hospital Santa Marina.

Hospital Gorliz.

Red de Salud Mental de Araba.

Red de Salud Mental de Bizkaia.

Red de Salud Mental de Gipuzkoa.

Osatek (Sociedad Pública).

Onkologikoa (Centro Vinculado).

Osakidetza ha adoptado el modelo de Organizaciones Sanitarias Integradas (OSI) como la base para desarrollar su enfoque asistencial, permitiendo la coherencia y coordinación necesarias para optimizar los resultados de salud en la población vasca. Este modelo abarca desde la promoción de la salud y la prevención de enfermedades, hasta el tratamiento integral de las principales causas de mortalidad y discapacidad.

El marco estratégico 2021-2024 situó la salud como eje central de todas las políticas, con las personas como principal foco de atención, en un contexto de equidad y proximidad. Las OSI han venido adaptándose a retos emergentes, tales como el envejecimiento, la cronicidad y la dependencia, y han incorporado nuevos enfoques para atender a grupos específicos, como la infancia, la adolescencia, las mujeres, las personas mayores y la diversidad en general.

Para asegurar una atención más cercana y equitativa, es necesario armonizar la asistencia primaria y hospitalaria con los elementos que integran la atención sociosanitaria, la innovación y las estructuras de gobernanza. Este enfoque responde al objetivo de Osakidetza de mejorar los resultados de salud mediante procesos asistenciales eficientes, basados en la coherencia y coordinación entre los diferentes niveles de atención.

El sistema sanitario se ha visto obligado a adaptarse rápidamente en los últimos años debido a los cambios de la sociedad, lo que ha requerido priorizar nuevas necesidades y adaptar la atención sanitaria para garantizar los máximos niveles de seguridad. Esta situación ha supuesto un considerable esfuerzo en términos de recursos, y ha impulsado la incorporación de tecnologías como la telemedicina y los sistemas de comunicación avanzada.

En este contexto, Osakidetza trabaja en dos líneas fundamentales de desarrollo:

1. Consolidación del modelo de organizaciones sanitarias integradas, mediante una estructura de gobierno unificada que garantice la coherencia entre la atención primaria y hospitalaria, maximizando el valor de la atención a las personas.

2. Integración clínico-funcional de los procesos asistenciales, a través de la creación de rutas asistenciales que favorezcan tanto la efectividad clínica como la accesibilidad de los usuarios, con especial atención a la cronicidad y la dependencia, en coordinación con el sector sociosanitario.

Azken batean, erakunde sanitario integratuaren eredua indartzea da euskal osasun-sistemaren egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko estrategiarik onenetako bat, eta kalitatezko arreta bermatzen du, osasunaren sustapenetik bizitzaren amaierara arte, baita gure biztanleriari eragiten dioten patologia nagusien prebentziotik eta tratamendutik ere.

1.2. Funts Soziala.

Funts soziala honela banatzen da:

PARTE-HARTZEAREN %:

EAEko Administrazioa %100

GUZTIRA %100

1.3. 2025eko ekitaldirako helburuak.

Gure osasun-sistemak oinarrizko giza eskubidetzat hartzen ditu osasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea. Printzipio horiek Osakidetza, Osasun Saila eta osasun-erakundeak gidatzeaz gain, botere publiko eta politika sektorial guztiek partekatzen dituzte. 2025. urterako, honako helburu estrategiko hauek ezarri dira:

1. Osasun Sistema indartzea

Sistemaren irisgarritasuna: irisgarritasuna da osasun-sistemaren printzipioetako bat, baita haren erronka nagusietako bat ere. Itxarote-zerrendak eta atzerapenak murriztea lehenetsiko da, herritar guztiek arreta sanitario egokia jasotzen dutela ziurtatzeko. Pertsona ardatz duen osasun-sistema bat mantentzeko lanean jarraituko dugu, balioan oinarritutako medikuntza ezarriz, asistentzia berriz diseinatu ahal izateko, arreta integratua eta pazientearengan zentratua izan dadin. Ebidentzia zientifikoan oinarritutako ikuspegi horri esker, pazienteari ahalduntzeko aukera ematen zaio, erabakiak hartzen parte har dezan, bere emaitza klinikoetan eta bizi-kalitatean oinarrituta. Bereziki, Plan Onkologikoan definitutako gaixotasunen tratamendurako medikuntza balioan inplementatzea lehenetsiko da.

Arretaren humanizazioa: Osakidetzan humanizazio-estrategia bat garatzen aurrera egingo da, asistentzia humanizatuko eredu korporatibo bat hedatzeko, ebaluatzeko eta horretan aurrera egiteko. Estrategia horretatik abiatuta, ekintza korporatiboko planak ezarriko dira humanizazioan/laguntza humanizatuan. Gainera, humanizazio-eredua ebaluatzeko sistema bat garatuko da, ezarritako estandarrak betetzen direla ziurtatzeko.

Pazienteak ahalduntzea: Osasun Eskola programaren garapena osatuko da, gaixoei beren gaixotasunen prebentzioari eta jarraipenari buruzko erabaki informatuak hartzen laguntzeko eta haiei prestakuntza emateko diseinatua. Programa honen helburua da pazienteak gaitzea beren osasuna modu eraginkorrean kudea dezaten.

En definitiva, el refuerzo del modelo de organización sanitaria integrada sigue siendo una de las mejores estrategias para afrontar los desafíos actuales y futuros del sistema sanitario vasco, garantizando una atención de calidad que abarque desde la promoción de la salud hasta el acompañamiento al final de la vida, pasando por la prevención y el tratamiento de las principales patologías que afectan a nuestra población.

1.2. Fondo Social.

El Fondo social se distribuye de la forma siguiente:

PARTICIPACIÓN %:

Administración de la CAPV 100%

TOTAL 100%

1.3. Objetivos del ejercicio 2025.

Nuestro sistema de salud considera la salud, el bienestar y la calidad de vida de las personas como derechos humanos fundamentales. Estos principios no solo guían a Osakidetza, el Departamento de Salud y las entidades sanitarias, sino que son compartidos por todos los poderes públicos y políticas sectoriales. Para el ejercicio 2025, se han establecido los siguientes objetivos estratégicos:

1. Reforzar el Sistema de Salud

Accesibilidad al Sistema: La accesibilidad es uno de los principios rectores del sistema sanitario y uno de sus principales retos. Se priorizará la reducción de listas de espera y demoras para asegurar que todos los ciudadanos reciban atención sanitaria oportuna. Se continuará trabajando para mantener un sistema de salud centrado en la persona, mediante la implantación de la medicina basada en el valor, que permite rediseñar la asistencia hacia una atención integrada y centrada en el paciente. Este enfoque, basado en evidencia científica, permitirá empoderar a los pacientes en la toma de decisiones compartida, basándose en sus propios resultados clínicos y calidad de vida. En particular, se priorizará la implementación de la medicina en valor para el tratamiento de enfermedades definidas en el Plan Oncológico.

Humanización de la Atención: Se avanzará en el desarrollo de una estrategia de humanización en Osakidetza con el objetivo de desplegar, evaluar y avanzar en un modelo corporativo de asistencia humanizada. A partir de dicha estrategia se establecerán planes de acción corporativos en Humanización/Asistencia Humanizada. Además, se desarrollará un sistema de evaluación del modelo de humanización para asegurar que se cumplan los estándares establecidos.

Empoderamiento de Pacientes: Se completará el desarrollo del programa Osasun Eskola, diseñado para formar y ayudar a los y las pacientes a tomar decisiones informadas sobre la prevención y el seguimiento de sus enfermedades. Este programa tiene como objetivo capacitar a los y las pacientes para que puedan gestionar su salud de manera efectiva.

Osasun Komunitarioa: Osasun Komunitarioko egitura berri bat ezarriko da, Lehen Mailako Arretako sarean oinarrituta eta Familia eta Komunitateko Medikuntzan espezializatutako erizainek kudeatuta. Egitura horren helburua izango da komunitateko arretaren integrazioa eta koordinazioa hobetzea.

Osasun Karpeta berritzea: arkitektura informatiko berri bat ezarri da Osasun Karpetarako, tresna aurreratuak txertatuz, hala nola minbiziaren baheketa-programen jakinarazpenen kudeaketa (bularra, kolona eta zerbixa), txostenak ikusi eta eskuratzeko aukera berriak, eta aurretiazko borondateen erregistroa. Berritze horri esker, osasun-informazioa modu eraginkorragoan eta eskuragarriagoan kudeatu ahal izango da.

E-osasuna: arretaren eta osasunaren eskuragarritasuna hobetzeko teknologia berriak garatzea errealitate bat da dagoeneko. Osakidetzak arreta pertsonalizatuko du aplikazio berrien bidez, datuen tratamendu pertsonalizatua eta doitasuneko medikuntzaren garapena errazteko, eta esku-hartze medikoak paziente bakoitzaren ezaugarrietara egokituko ditu.

Pazientearen segurtasuna: 2021-2030 estrategia ezartzen jarraituko da. Estrategia horrek Osakidetzan azken urteetan lortutako ezagutza eta ikaskuntza jasotzen ditu, pazientearen segurtasuna eta emaitza klinikoak hobetzeko.

2. Azpiegitura eta ekipamenduen hobekuntza

Zentroen modernizatzea: ospitaleak eta lehen mailako arretako zentroak handitu eta modernizatuko dira. Handituko dira: Basurtuko, Usansolo-Galdakaoko, Donostiako, Txagorritxuko, Zumarragako eta Arrasateko ospitaleak eta Tolosako Ospitalea sortuko da. Basurtun eta Galdakaon, kanpo-kontsultak handitzeko obrak egingo dira; Donostian, berriz, kanpo-kontsultez gain, protonterapiarako eraikin bat eraikiko da, minbizia tratatzeko teknologia aurreratua. Bidasoako Ospitaleko bloke kirurgikoa ere handituko da.

Onkologikoaren integrazioa: bai azpiegituraren ikuspegitik, bai zerbitzuen ikuspegitik.

Zentro logistikoa: zentro logistiko berri bat jarriko da abian Iurretan. Plataforma logistiko zentralizatu horrek erosketa-kostuak optimizatzea, material sanitarioak estandarizatzea eta pazientearen segurtasunean eta Osakidetzaren eraginkortasun operatiboan aurrera egitea ahalbidetuko du.

Iraunkortasun energetikoa: Eusko Jaurlaritzaren Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea betez, jasangarritasunera bideratutako proiektuak egingo dira, hala nola Barakaldoko BECean, estalkian, panel fotovoltaikoak instalatzea, osasun-zentroetako argiztapena modernizatzea, hainbat zentrotan biomasa-galdarak instalatzea eta Basurtun eta Donostian industria-eraikin berriak eraikitzea. Proiektu horiek eraginkortasun energetikoa lortzen eta emisioak murrizten lagunduko dute.

Salud Comunitaria: Se establecerá una nueva estructura de salud comunitaria apoyada en la red de Atención Primaria y gestionada por enfermeras especialistas en Medicina Familiar y Comunitaria. Esta estructura buscará mejorar la integración y coordinación de la atención en la comunidad.

Renovación de la Carpeta de Salud: Se ha implantado una nueva arquitectura informática para la Carpeta de Salud, incorporando herramientas avanzadas como la gestión de notificaciones de programas de cribado de cáncer (mama, colon y cérvix), nuevas opciones de acceso y visualización de informes, y el registro de voluntades anticipadas. Esta renovación permitirá una gestión más eficiente y accesible de la información de salud.

E-Salud: Se continuarán desarrollando nuevas tecnologías para mejorar el acceso a la atención y la salud. Osakidetza se enfocará en personalizar la atención mediante nuevas aplicaciones que faciliten el tratamiento personalizado de datos y el desarrollo de la medicina de precisión, adaptando las intervenciones médicas a las características individuales de cada paciente.

Seguridad del Paciente: Se continuará con la implementación de la estrategia 2021-2030 que incorpora el conocimiento y aprendizaje adquirido en Osakidetza durante los últimos años para mejorar la seguridad del paciente y los resultados clínicos.

2. Mejora de Infraestructuras y Equipamientos

Modernización de Centros: Se llevarán a cabo una serie de ampliaciones y modernizaciones en hospitales y centros de Atención Primaria. Las acciones incluyen las ampliaciones de los hospitales de Basurto, Usansolo-Galdakao, Donostia, Txagorritxu, Zumarraga, Arrasate, y la creación del Hospital Tolosa. En Basurto y Galdakao, las obras se centrarán en la ampliación de consultas externas, mientras que, en Donostia, además de las consultas externas, se construirá un edificio para protonterapia, una tecnología avanzada en el tratamiento del cáncer. También se ampliará el bloque quirúrgico del Hospital de Bidasoa.

Se abordará la integración de Onkologikoa, tanto desde el punto de vista de infraestructura como de servicios.

Centro Logístico: Se pondrá en marcha un nuevo Centro Logístico en Iurreta. Esta plataforma logística centralizada permitirá optimizar los costes de compra, estandarizar los materiales sanitarios, y avanzar en la seguridad del paciente y en la eficiencia operativa de Osakidetza.

Sostenibilidad Energética: En cumplimiento con la Ley 4/2019 de Sostenibilidad Energética del Gobierno Vasco, se realizarán proyectos orientados a la sostenibilidad, incluyendo la instalación de paneles fotovoltaicos en la cubierta del BEC en Barakaldo, la modernización de la iluminación en centros de salud, la instalación de calderas de biomasa en varios centros, y la construcción de nuevos edificios industriales en Basurto y Donostia. Estos proyectos contribuirán a la eficiencia energética y a la reducción de emisiones.

3. Bikaintasuna Ospitaleko Arreta Espezializatuan

Itxaron-zerrendak berreskuratzea: kirurgiako itxarote-zerrendak 65/2006 Dekretuan ezarritako mailetatik behera berreskuratzeko lan egingo da. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sisteman (Osakidetza) espezializatutako asistentzia sanitarioan itxaroteko gehieneko denborak arautzen ditu. Dekretu horrek ezartzen ditu pazienteek euskal osasun publikoaren sisteman ebakuntza kirurgiko, proba diagnostiko edo kontsulta jakin batzuk jasotzeko itxaron behar dituzten gehieneko epeak, pandemiaren inpaktuaren ondoren arreta egokia eta kalitatezkoa bermatzeko. Helburua da maila horiek estatuko eta Europako baxuenen artean mantentzea.

Espezializazio handia: erreferentziazko unitateetan espezializazio handiko politikari eutsiko zaio, osasunean emaitza hobeak lortzeko, tratatutako kasuen kopuruaren eta lortutako emaitzen artean harreman frogatua dagoen lekuetan.

4. Kudeaketa farmazeutikoa

Berrikuntza eta efizientzia: kudeaketa farmazeutiko berritzaile eta jasangarria sustatuko da, eta egoitzetarako medikamentuen banaketa zentralizatuko da, dosi pertsonalizatuen sistema batekin. Neurri honen helburua da medikamentuen horniduraren eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea.

5. Langileen gaikuntza eta gogobetetasuna

Plantilla, egonkortasuna eta lan-baldintzak: 2020tik 2024ra bitartean, hautaketa-prozesuak egin dira 11.000 plaza baino gehiago betetzeko, Osakidetzari beharrezko baliabideak emateko eta lan-egonkortasuna bermatzeko, honako hauek barne:

a. 2018ko eta 2019ko enplegu publikoaren eskaintzaren hautaketa-prozesua amaitzea; guztira, 3.535 plaza.

b. Egonkortzeko EPEan (3.723 plaza) eta 2020-2021-2022 EPEtan (3.919 plaza) plaza berrien deialdia.

2025. urtean, hautaketa-prozesu guztiak amaituko dira, eta, hala badagokio, prozesu berrien deialdia egingo da.

Era berean, lan-baldintzak eguneratzen joango dira, indarrean dagoen arau-esparrura egokitzeko. Familia eta norberaren bizitza bateragarri egiteko neurriak ere hobetuko dira, ordutegi-malgutasuna eta telelana sustatuz.

Hautaketa eta Horniketa: lanbide-hautaketako eta -sustapeneko ereduak berrikusiko dira. Mugikortasun-sistema ireki eta iraunkorrarekin jarraituko da, praktika hori sendotzeko.

Genero-ikuspegia: «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana» egin, onartu eta hedatuko da. Planak helburu hauek izango ditu: berdintasuna sustatzea, bai barruan, bai kanpoan; soldata-arrakala murriztea, eta zuzendaritzako eta erabakiak hartzeko postuetan emakumeen ordezkaritza handitzea; genero-ikuspegia duen berrikuntza eta ikerketa bultzatzea; eta emakumeari eta indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko laguntza-politikekiko arreta eta koordinazioa hobetzea.

3. Excelencia en Atención Especializada y Hospitalaria

Recuperación de Listas de Espera: Se trabajará para recuperar las listas de espera quirúrgica a niveles inferiores a los establecidos en el Decreto 65/2006 que regula los tiempos máximos de espera en la atención sanitaria especializada en el sistema sanitario del País Vasco (Osakidetza). Este decreto establece los plazos máximos que los pacientes deben esperar para recibir ciertas intervenciones quirúrgicas, pruebas diagnósticas o consultas en el sistema de salud pública vasco, con el objetivo de garantizar una atención oportuna y de calidad, después del impacto de la pandemia. El objetivo es mantener estos niveles entre los más bajos del estado y Europa.

Alta Especialización: Se mantendrá una política de alta especialización en Unidades de Referencia para lograr mejores resultados en salud, basada en la relación entre el número de casos tratados y los resultados obtenidos.

4. Gestión Farmacéutica

Innovación y Eficiencia: Se promoverá una gestión farmacéutica innovadora y sostenible, incluyendo la centralización de la dispensación de medicamentos para residencias con un sistema de dosis personalizadas. Esta medida busca mejorar la eficiencia y la calidad del suministro de medicamentos.

5. Capacitación y Satisfacción del Personal

Plantilla, Estabilidad y condiciones laborales: Entre 2020 y 2024 se han llevado a cabo los procesos selectivos para la cobertura de más de 11.000 plazas, para dotar a Osakidetza de los recursos necesarios y garantizar la estabilidad laboral, que incluye:

a. La finalización del proceso de selección de la oferta pública de empleo de 2018 y 2019, que incluye un total de 3.535 plazas.

b. La convocatoria de nuevas plazas en la OPE de estabilización (3.723 plazas) y en las OPE 2020-2021-2022 (3.919 plazas).

A lo largo del año 2025 se procederá a finalizar todos los procesos selectivos y, en su caso, a la convocatoria de nuevos procesos.

Asimismo, se irán actualizando las condiciones laborales para ajustarlas al marco normativo vigente. También se mejorarán las medidas de conciliación familiar y personal, promoviendo la flexibilidad horaria y el teletrabajo.

Selección y Provisión: Se revisarán los modelos de selección y promoción profesional. Se continuará con el sistema de movilidad abierto y permanente para consolidar esta práctica.

Perspectiva de Género: Se realizará la elaboración, aprobación y despliegue del «II Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres » con los objetivos de promover la igualdad en el ámbito interno como en el externo, reducir la brecha salarial y aumentar la representación femenina en puestos de dirección y decisión, impulsar la innovación e investigación con perspectiva de género y mejorar la atención y coordinación con las políticas asistenciales dirigidas a la atención a la mujer y a las víctimas de la violencia machista.

Ezagutzaren kudeaketa eta lanbide-garapena: Lanbide-garapeneko beste deialdi arrunt bat egingo da, eta lanbide-garapeneko eredu berri bat definitzen jarraituko dugu, talentua erakartzeko eta esparru sanitarioan atxikitzeko. Gainera, prestakuntza estrategiko korporatiboa bultzatuko da, eta kalitatezko informazio bibliografikorako sarbidea bermatuko da, Liburutegi Birtualaren bidez; horrela, ezagutzaren kudeaketaren kultura sustatuko da.

Euskararen erabileraren normalizazioa: Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Planaren tarteko ebaluazioa egingo da, eta plan hori bultzatzen jarraituko da, Osakidetzako zerbitzu eta arlo profesionaletan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko eta normalizatzeko.

6. Lehen Mailako Arreta

Bultzada eta errefortzua: Lehen Mailako Arreta indartzen jarraituko da, herritarrengandik hurbilen dagoen asistentzia-maila gisa. Sare osoan eskaria kudeatzeko eredua homogeneizatzeko eta bultzatzeko lan egingo da, fisioterapia sartzea eta espezialitatea indartzea barne, erakargarritasuna areagotuko duten eta profesional berriak erakarriko dituzten ekintzen bidez.

Komunitateko Arreta: komunitateko arreta eredu bikain eta koordinatu bat garatuko da, honako hauek bilduko dituena: beharrezko egituraren azterketa bat, tratamendu komunitarioko estrategiaren inplementazioa eta Komunitateko Erizaintzaren figuraren ezarpena. Halaber, tokiko baliabideen mapaketa egingo da eta parte-hartze komunitarioko espazioak sustatuko dira.

Ikerkuntza eta irakaskuntza: Lehen Mailako Arretako ikerketa bultzatuko da, eta, gainera, irakaskuntza-unitateekin lankidetzan arituko da egoiliarrei erreferentziazko prestakuntza emateko.

Arreta soziosanitarioa: Osakidetzaren eta zentro soziosanitarioen arteko elkarreragingarritasuna bultzatuko da, Osasun Sailaren 2021-2024 aldirako Estrategia Soziosanitarioan oinarrituta, pertsonen arreta hobetzeko.

Helburu horiek gure osasun-sistema indartzeko eta modernizatzeko diseinatuta daude, herritar guztientzako kalitate handiko arreta eskuragarria eta eraginkorra bermatuz eta, aldi berean, gure profesionalen gogobetetzea eta garapena bermatuz.

2. 2025. URTERAKO HELBURU NAGUSIAK ETA HORIEN ZENBATEKOA

Gestión del Conocimiento y Desarrollo profesional: Se realizará una nueva convocatoria ordinaria de desarrollo profesional y se seguirá trabajando en la definición de un nuevo modelo de desarrollo profesional para atraer y retener talento en el ámbito sanitario. Además, se impulsará la formación estratégica corporativa y se garantizará el acceso a la información bibliográfica de calidad a través de la Biblioteca Virtual, fomentando así la cultura de la gestión del conocimiento.

Normalización del Uso del Euskera: Se llevará a cabo la evaluación intermedia del 3er Plan de Normalización del Uso del Euskera, y se continuará impulsando el mismo, con el fin de aumentar y normalizar la presencia y uso del euskera en los servicios y áreas profesionales de Osakidetza.

6. Atención Primaria

Impulso y Refuerzo: Se continuará reforzando la Atención Primaria como el nivel asistencial más cercano a la ciudadanía. Se trabajará en la homogeneización e impulso del modelo de gestión de la demanda en toda la red, incluyendo la incorporación de fisioterapia y el fortalecimiento de la especialidad mediante acciones que aumenten su atractivo y atraigan a nuevos profesionales.

Atención Comunitaria: Se desarrollará un modelo de atención comunitaria excelente y coordinada, que incluya un estudio de la estructura necesaria, la implementación de la estrategia de abordaje comunitario y la implantación de la figura de la Enfermería Comunitaria. También se realizará un mapeo de recursos locales y se promoverán los espacios de participación comunitaria.

Investigación y Docencia: Se impulsará la investigación en Atención Primaria y, además, se colaborará con las Unidades Docentes para proporcionar una formación de referencia a los residentes.

Atención Sociosanitaria: Se dará un impulso a la interoperabilidad entre Osakidetza y los centros sociosanitarios, basándose en la Estrategia Sociosanitaria del Departamento de Salud 2021-2024, para mejorar la atención de las personas.

Estos objetivos están diseñados para fortalecer y modernizar nuestro sistema de salud, garantizando una atención de alta calidad, accesible y eficiente para toda la población, al tiempo que se asegura la satisfacción y el desarrollo de nuestros profesionales.

2.OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2025 Y SU CUANTIFICACIÓN

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. OSASUN-SISTEMAREN ESTALDURA UNIBERSALA ETA IRISGARRITASUNA BERMATU.		**1. GARANTIZAR LA COBERTURA UNIVERSAL Y LA ACCESIBILIDAD AL SISTEMA SANITARIO.**

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. Herritarrak osasun-sistemara gerturatzea eta iristea errazten duten zerbitzu telematikoak bultzatu eta aurrez aurrekoak ez diren harreman-bideak finkatu.		1. Impulsar los servicios telemáticos y consolidar los canales de relación no presencial que facilitan la proximidad y la accesibilidad de cada persona al sistema sanitario.
Aurrezko aurrekoak ez diren /Aurrez aurreko kontsulten %.	**%30**	% Porcentaje consultas No Presenciales / Presenciales.
Ahotiko antikoagulazioaren autokontrola bultzatzea: autoanalisia eta medikazioaren autokudeaketa.	**%75**	Impulsar el autocontrol de la anticoagulación oral: Autoanálisis y Autogestión medicación.
Tabako-tratamendu ez-presentziala bultzatzea teknologia berrien bidez: Internet bidezko taldeko esku-hartzea, Tabakorik gabe bizi app-a.	**%100**	Impulsar tratamiento no presencial en tabaco a través de nuevas tecnologías: Intervención grupal on line, APP viven sin tabaco.
2. Desgaitasun fisikoa edo sentsoriala dutenen irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren jarduerak egin euskal osasun-sistemaren zentro,instalazio, baliabide eta zerbitzu guztietan.		2. Desarrollar las actuaciones necesarias para garantizar la accesibilidad a las personas con discapacidad física y sensorial en todos los centros,instalaciones, recursos y servicios del sistema vasco de salud.
Teleinterpretazio-sistema egonkortzea (erabileraren %).	**%100**	Consolidación del sistema de teleinterpretación (% uso en los centros).
Komunikazio-sistema/begi-irakurgailua egonkortzea (hedapenaren %).	**%100**	Consolidación del sistema de comunicación/lector ocular(% despliegue).
3. Herritarren parte-hartzeari leku handiagoa eman osasun-zerbitzuen antolaketan eta erabakiguneetan, eta pazienteen elkarteekin lankidetza izatea sustatu, gaixotasuna hobeto ezagutzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko tresnak garatzeko xedez.		3. Reforzar la incorporación de la participación ciudadana en la orientación de los servicios sanitarios y en los diferentes ámbitos de decisión y promover la cooperación con las asociaciones de pacientes para desarrollar herramientas destinadas a mejorar el conocimiento sobre la enfermedad y su calidad de vida.
2. ITXAROTE-ZERRENDAK EZARRITAKO RATIOEN AZPITIK MANTENDU.		**2. MANTENER LISTAS DE ESPERA POR DEBAJO DE LOS RATIOS ESTABLECIDOS.**
1. Profundizar en las medidas puestas en marcha para disminuir los tiempos de acceso a consultas de atención especializada y pruebas complementarias.		1. Profundizar en las medidas puestas en marcha para disminuir los tiempos de acceso a consultas de atención especializada y pruebas complementarias.
2. Prozedura kirurgikoetarako batez besteko itxarote-denbora martxoaren 21eko 65/2006 Dekretuak ezarritako ratioen azpitik mantentzea bermatu; dekretu horren bidez, Euskadiko Osasun Sistemaren konturako prozedura kirurgiko programatuetara eta urgenteak ez direnetara iristeko gehienezko epeak ezarri ziren.		2. Garantizar el mantenimiento del tiempo promedio de espera para acceder a procedimientos quirúrgicos por debajo de los ratios marcados en el Decreto 65/2006, de 21 de marzo, por el que se establecen los plazos máximos de acceso a procedimientos quirúrgicos programados y no urgentes a cargo del sistema sanitario de Euskadi.
Batez besteko atzerapena Kirurgian.(Egunak)	**<60**	Demora media Quirúrgica.(Días)
Kanpo-kontsulten batez besteko atzerapena. (Egunak)	**<30**	Demora media de Consultas Externas.(Días)
Batez besteko atzerapena Proba Osagarrietan.(Egunak)	**<20**	Demora media en Pruebas Complementarias.(Días)
3. OSASUNAREN ZAINKETAN PERTSONEN ERANTZUKIDETASUNA SUSTATU.		**3. FOMENTAR LA CORRESPONSABILIDAD DE LAS PERSONAS EN EL CUIDADO DE LA SALUD.**
Odol-emateak (urteko).	**90.000**	Donaciones de sangre (anual).

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Organo-emateak (Hezur-muina).	**800**	Donaciones de órganos (Médula Ósea).
Organo-emateak (Giltzurruna, Gibela, etab.).	**100**	Donaciones de órganos (Riñón, Hígado, etc.).
Organo-emateak (Ehunak).	**120**	Donaciones de órganos (Tejidos).
1. «Osasun Eskola» ekimena indartuko da, haurtzarotik bizitza-estilo osasuntsuagoak sustatzeko, baita osasun-zerbitzuen erabilera egokia ere.		1. Fortalecer la iniciativa «Osasun-Eskola» para la promoción de estilos de vida más saludables, así como el buen uso de los servicios sanitarios.
2. Etxean erraz ebatz daitezkeen gaixotasun arruntei buruzko edukiak zabaltzea.		2. Ampliación de contenidos sobre enfermedades comunes de fácil resolución en domicilio.
- Elikadura	**%100**	- Alimentación
- HOP-Haurren osasun plana.	**%80**	- PSI-Plan de salud infantil.
- Heldu nagusia	**%100**	- Persona adulta mayor
- Agi-hortzen osasuna/ PADI	**%100**	- Salud Bucodental / PADI
- Climaterio	**%100**	- Climaterio
- Asma	**%30**	- Asma
3. Gaixotasun kronikoak dituzten pazienteei lagundu, dauzkaten osasun-arazoen kontrol handiagoa izan dezaten. «Paziente bizia» (Paciente Activo) programa.		3. Apoyar a los pacientes con enfermedades crónicas para que avancen en la toma de control sobre sus problemas de salud. Programa «Paziente Bizia» (Paciente activo).
Gaixotasun kronikoaren autokudeaketa hobetzeko online ikastaroa. Kronik On (egindako lanen %).	**%100**	Curso online destinado a mejorar la autogestión de la enfermedad crónica. Kronik On (% realización).
Aurreko hiru ekimenekin lotuta adierazle hauek nabarmendu behar dira (egindako lanen %):		En relación con las tres anteriores iniciativas cabe destacar los siguientes indicadores (% realización):
Paziente Bizia Programaren garapen-maila.	**%100**	Grado de desarrollo del Programa Paciente Activo.
Paziente bizia programaren prestakuntza-eskaintza sustatzea ESletan.	**%100**	Promover e impulsar en las OSIs la oferta formativa programa Paziente Bizia-Paciente Activo.
Paziente bizia programa bultzatzea ESletan teknologia berrien bidez (online ikastaroak, bideokonferentziak, etabar).	**%100**	Impulsar en las OSIs programa Paziente Bizia- Paciente Activo a través de nuevas tecnologías(cursos online, formato videoconferencia).
Nire bihotz-gutxiegitasuna zaintzen programa bultzatzea ESletan teknologia berrien bidez (online ikastaroak, bideokonferentziak, etab.).	**%100**	Impulsar en las OSIs el taller Cuidando mi insuficiencia cardiaca (formación de monitores e intervención ciudadanía).
Nire ongizate emozionala zaintzen programa bultzatzea ESletan teknologia berrien bidez (online ikastaroak, bideokonferentziak, etab.).	**%100**	Impulsar en las OSIs el taller Cuidando mi bienestar emocional (formación de monitores e intervención ciudadanía).
Antikoagulazio-tailerra bultzatzea. Paziente Bizia Programa.	**%75**	Impulsar taller Anticoagulación. Programa Paciente Activo.
BGBK-ko Paziente Bizia programa garatzea.	**%75**	Desarrollo Programa Paciente Activo EPOC.
Neure burua zaintzen, besteak zaintzeko (formatu presentziala) tailerra garatzea.	**%75**	Desarrollo Taller Cuidándome para cuidar formato presencial.
Begirale berrien prestakuntza sustatzea ESletan.	**%100**	Impulsar en las OSIs formación nuevos monitores.
BGBKren ibilbide korporatiboa.	**%50**	Ruta corporativa EPOC.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Ezartzea Esku-hartzeak depresioan LMAtik (Mastermind).	**%100**	Implementación intervención en Depresión desde AP (Masterrmind).
Paziente bizia programako tailerrak amaitzen dituzten pazienteen/zaintzaileen/herritarren %.	**%80**	% pacientes/cuidadores/ciudadanía que finalizan tallleres programa Paziente Bizia-Paciente Activo.
Nire Osasuna Aktiboki Zainduz tailerra amaitzen duten pazienteen/zaintzaileen/herritarren %	**%80**	% pacientes/cuidadores/ciudadanía que finalizan taller Cuidando Activamente mi Salud.
Nire diabetesa zaintzen tailerra amaitzen duten pazienteen/zaintzaileen/herritarren %	**%80**	% pacientes/cuidadores/ciudadanía que finalizan taller Cuidando mi diabetes.
Minbiziaren ondoren nire osasuna zaintzen tailerra amaitzen duten pazienteen/zaintzaileen/herritarren %	**%80**	% pacientes/cuidadores/ciudadanía que finalizan taller Cuidando mi salud después del cáncer.
Nire ongizate emozionala zaintzen tailerra amaitzen duten pazienteen/zaintzaileen/herritarren %	**%80**	% pacientes/cuidadores/ciudadanía que finalizan taller Cuidando mi bienestar emocional
Entrenamendu aktiboa ikastaroa amaitzen duten pazienteen/zaintzaileen/herritarren %	**%80**	% pacientes/cuidadores/ciudadanía que finalizan el curso Entrenamiento Activo online
Neure burua zaintzen, besteak zaintzeko online ikastaroa amaitu duten pazienteen/zaintzaileen/herritarren %.	**%80**	% pacientes/cuidadores/ciudadanía que finalizan el curso Cuidándome para cuidar on line.
Antikoagulazioari buruzko ikastaroa (plataforma berria) amaitu duten pazienteen/zaintzaileen/herritarren %.	**%50**	% pacientes/cuidadores/ciudadanía que finalizan el curso Anticoagulación (nueva plataforma).
Osasuna zaintzen ijitoen herrian tailerra amaitzen duten pertsonen %	**%25**	% personas que finalizan el taller Cuidando la salud en el pueblo gitano
Nire bihotz-gutxiegitasuna zaintzen tailerra amaitzen duten pertsonen %	**%80**	% personas finalizan asistencia taller Cuidando mi insuficiencia cardiaca
Paziente bizia programan esku-hartze eta ikerketa motako ikerlanak bultzatu eta garatzea.	**%100**	Impulso y desarrollo estudios de investigación intervención Programa Paziente Bizia-Paciente Activo.
Egituratutako Osasunerako Heziketa proiektuak dituzten ESIen kopurua (Haurtzaroari, helduaroari eta zahartzaroari zuzenduta).	**13**	N. de OSIs con proyectos de Educación para la Salud estructurados (Dirigidos a infancia, edad madura y vejez).
Ebaluatutako Osasunerako Heziketa proiektu egituratuen kopurua (jardueraren xehetasuna).	**110**	N. de proyectos de Educación para la Salud estructurados evaluados (detalle de actividades).
